

BOsek Bizkaiko hiru ospitaletan joko du Europako Musikaren Eguna ospatzeko

BOsek musikariekin Basurtu, Gurutzeta eta Santa Marina ospitaleetan joko dute

Bilbo, 2021eko ekainak 18

Astelehenean, ekainaren 21ean, **Europako Musikaren Eguna** ospatuko da. Ekitaldi horren helburu nagusia da musika kalera ateratzea, mundu guztiak musikaz doan gozatzeko aukera izan dezan, estiloa, hierarkiak eta jatorriak kontuan hartu gabe.

Aurten, musikaren jai honek balio berezia izango du, Covidaren ondorioz bizi izan dugun eta oraindik ere bizitzen ari garen egoera zaila dela-eta. Gizarte osoak pairatu ditu konfinamendua eta mugikortasun- edo edukiera-mugak, hala ere, ospitaleetan lan egiten duten herritarrek edo bertan egon diren gaixoek are gehiago sufritu dute.

Hori dela eta, **Bilbao Orkestra Sinfonikoak zentro horietako batzuetan eskaini nahi ditu egun horretako emanaldiak.**

Astelehenean, hilaren 21ean, gure orkestrako hainbat musikarik Bizkaiko hiru ospitaletan joko dute, **zentro horiekin batera antolatutako jarduera honen baitan:** "MUSIKA eta OSASUNA - BOS OSPITALEETAN".

Hona hemen eskainiko diren kontzertuak eta ospitaleak:

Ospitalea	Musikariak	Kontzertuak (iraupena: 20'-30')
Basurtu	Marion Desjaques, harpa	10:30 - Kanpo konsulten sarrera 11:15 - Errehabilitaziorako gimnasioa 12:00 - Haur eta nerabeen unitatea
Gurutzeta	Claudia Bak, biolina Silvia Cantatore, biolina	11:00 - Kimioterapia aretoa 15:30 - Kimioterapia aretoa
Santa Marina	Luis Alberto Requejo, klarinetea Pedro Vela, flauta José Gárate, kontrabaxua Miriam Cepeda, pianoa	11:00 – Bigarren solairuko atondoa

Jarduera horren berri eman nahi duten komunikabideak **Basurtuko Ospitalera edo Santa Marinako ospitalera** etor daitezke, lehenengo emanaldian.

Jarduera hori egiteko hautatu diren tokiak oso bereziak direla kontuan hartuta, arren eskatzen dizuegu garaiz iritsi zaitezuela (emanaldia hasi baino hamar minutu lehenago etortzea komeni da), bai eta segurtasun-neurriak bereziki zaintzea ere.

La BOS celebrará el Día Europeo de la Música actuando en tres hospitales de Bizkaia

Músicos de la BOS actuarán en los Hospitales de Basurto, Cruces y Santa Marina

Bilbao 18 de junio de 2021

El próximo lunes, 21 de junio, se celebra el **Día Europeo de la Música**. Un evento que tiene como objetivo principal sacar la música a las calles, dando la oportunidad a todo el mundo de disfrutar de ella de una manera gratuita, sin importar el estilo, las jerarquías ni los orígenes.

Este año esta fiesta musical tiene un valor especial debido a la complicada situación que hemos vivido, y vivimos, por causa de la Covid. Si toda la sociedad ha sufrido por el confinamiento y las restricciones de movilidad o de aforos, los ciudadanos que trabajan o son atendidos en los hospitales, lo han hecho de una forma más intensa.

Por eso la **Bilbao Orkestra Sinfonikoa** quiere centrar su actividad en este día con actuaciones en algunos de esos centros.

El lunes 21 a la mañana músicos de nuestra orquesta actuarán en tres hospitales de Bizkaia, **en una actividad coorganizada** con dichos centros bajo el nombre, **MUSIKA eta OSASUNA - BOS OSPITALEETAN**.

Estos son los hospitales y los conciertos que se ofrecerán

Hospital	Músicos	Conciertos (duración 20'-30')
Basurto	Marion Desjaques, arpa	10:30 - Entrada de consultas externas 11:15 - Gimnasio de rehabilitación 12:00 - Unidad infanto—juvenil
Cruces	Claudia Bak, violín Silvia Cantatore, violín	11:00 - Sala de quimioterapia 15:30 – Sala de quimioterapia
Santa Marina	Luis Alberto Requejo, clarinete Pedro Vela, flauta José Gárate, contrabajo Miriam Cepeda, piano	11:00 – Hall de la planta 2

Los medios que quieran cubrir esta actividad podrán hacerlo **en el Hospital de Basurto o en el Hospital de Santa Marina** en su primer pase .

Dadas las especiales características de los lugares donde se realiza esta actividad, se ruega la máxima puntualidad (conveniente estar 10 minutos antes de su inicio) y una especial atención a las medidas de protección.